



## HOMOLOGAZIOAK BERRIKUNTZA AGENDAK



Acorde Consulting-eko hiru aholkulari gehiagok lortu dute +innova programaren barruan kokatzen den "Berrikuntza Agendak" ekimena garatzeko homologazioa: Óscar Ayllón Corral, Juan Carlos Díaz eta Raquel Escallada.

Orain arte, Acorde Consulting-ek 15 "Berrikuntza Agenda" burutzeko aholkularitza zerbitzua eskaini du, horietatik 4 euskaraz egin ditu.

## BERRIKUNTZARAKO TRESNAK: JAGOTZA TEKNOLOGIKOA ETA PATENTEAK



Urtero bezala, Acorde Consulting-ek Azpiegitura eta Bizkaiko Berrikuntza Agentziak XIV. Europar Kalitatearen Astearen antolatutako ekitaldian parte hartu du, "I+G+B Plangintza Estrategikoa" penon-tziarekin.

Jose Antonio Calvok, Acorde Consulting-eko Zuzendariak, berrikuntza estrategiaren funtsezko osagai modura aurkeztu zuen, erakundeak definituta duen ikuspegiarantz aurrera pausak emateko aldatetaren gakoak ezartzen baititu. Halaber, zaintza jarraitu eta sistematikoaren garrantzia azpimarratu zuen, erabakiak hartzen lagunduko duen elementu modura.

AENOR-eko Gerardo Malvidok Jagotza Teknologikoaren Sistema UNE 166006:2006 araua aurkeztu zuen. Arau hau "maila guztietan erabakiak hartzeko laguntza emango duen inguruaren behaketa prozesua egituratzeko erraztasunak emateko" sortu da.

Esther Ariasek, Patente eta Marken Erakundeko ordezkariak, Espainian jabetze industrialeko eskubideak eskatzeko eta erregistratzeko modua azaldu zuen, eta baita patenteen erabilgarritasuna. Bestetik, Jagotza Teknologikoa burutzeko patenteen data baseak dituzten doako aukerak azpimarratu zituen.

Azkenik, Idoia Uriartek, Euskalteko Zerbitzu eta Sare Ingeniaritza Zuzendariak, Jagotza Teknologikoaren arloan kasu praktikoko baten adibidea plazaratu zuen. Euskalteko Teknologia kudeatzeko prozesu bat dauka eta, honen bitartez, Behaketa Teknologikoko Saila, Ekintza Teknologikoa eta I+G+B programek diruz lagundutako proiektuak kudeatzen dira.



Jardunaldiko hizlariak: AENOR-eko Gerardo Malvado, Patente eta Marken Erakundeko Esther Arias, Acorde Consulting-eko Jose Antonio Calvo eta Euskalteko Idoia Uriarte

## BERRI LABURRAK

Acorde Consulting-ek Euskalitek antolatutako Bikaintasunaren Sariaren urteroko edizioan parte hartu du, bost kanpo ebaluaketan bere laguntza eskainiz. Halaber, kanpo kontraste bat burutu du, erakundeari bikaintasunerako bidean sostengua emanez.

Jose Antonio Calvok, Acorde Consulting-eko Zuzendariak, Innobasqueren Gobernu Organoetan parte hartzen du, Berrikuntza Sistemaren Nazioartekotze Zuzendaritza Kontseilu Exekutiboan hain zuzen ere.

## PROZESU BIDEZKO KUDEAKETA BIKAIN-TASUNA ETA BERRIKUNTZARAKO KLABE BEZALA



Acorde Consulting-ek Iraurgi Lantzenekin, Urola Erdiaren Bultzatze eta Garpenerako Elkartea, kolaboratu du "Prozesuen bidezko kudeaketa berrikuntza eta bikaintasunerako bidean elementu gako bezala" jardunaldian, XIV. Kalitatearen Europar Astearen programaren barruan.

Jardunaldiak ikuspegi teoriko-praktikoa izan zuen. Lehenik eta behin prozesuen bidezko kudeaketa ezartzeko elementu gakoak zeintzu diren azaldu zen eta, ondoren, adibide praktikoa bat aztertu zen, Javier Etxaniz, Oerlikon Balzers-Elay enpresako Kalitate Arduradunaren eskutik.

Jose Antonio Calvok funtsezko elementu batzuen garantzia azaldu zuen: Prozesuen Maparen finkapena, dokumentazioa eta sistematizazioa, helburu eta adierazlearen ezarpena, kudeaketa taldearen definizioa, prozesuen egonkortzea eta helburu estrategikoen hedapena.



Jose Antonio Calvo, Acorde Consulting-eko Zuzendariak, Kalitatearen Europar Astearen ekitaldi batean

Jabier Etxanizen hitzaldiaren muina prozesuen bidezko kudeaketaren esperientzia praktikokoaren azalpena izan zen. Erakundearen egungo prozesuen mapa aurkeztu zuen, ikuspegi aldaketa agerian jartzen duen garapen baten emaitza gisa. Halaber, "Estaltze Zerbitzua" makroprozesuaren esperientzia pilotua azaldu zuen helburuen jarraipen eta hedapen sistematikan enfasi berezia ipiniz. Proiektu hau Acorde Consulting-eko aholkulariek lagunduta burutu da, Euskaliten "Akziorako Laguntza" programaren barruan.

Ekitaldi honetan izandako elkar lanaz gain, Acorde Consulting-ek Iraurgi Lantzen Garapen Agentziarekin lanean aritu da 2008 urtean zehar, inguruko enpresa industrialei zuzendutako 5S eta Plangintza Estrategikoko Euskalitek antolatutako "Akziorako Laguntza" programak lideratuz.

## 2009 URTERAKO IKASTAROAK

Euskalitek 2009 urtera begira diseinatu duen prestakuntza programarako, Acorde Consulting-ek aholkulari homologatuak ditu hurrengo modulu hauetan prestakuntza emateko:

- \* 5S-en ezarpena enpresa industrialetan.
- \* Prozesuen bidezko kudeaketaren ezarpena.
- \* Estrategia eta helburuen hedapena.
- \* Gizartearen ahotsak nola entzun eta kontutan hartu.
- \* Jasangarritasun memoriak
- \* EFQM kasu praktikokoaren ebaluazioa.
- \* EFQM memoriaren erredakzioa.
- \* Q turistikoaren ezarpena ostatuetan.

